



REAL SOCIEDAD DE FÚTBOL, S.A.D.

1. DEFINIZIOA

- a) Real Sociedad de Fútbol S.A.D.ko Lagun Taldeak elkarte burujabe eta independenteak dira, eta araudi hauen arabera antolatzen dira: beren estatutuak, Euskadiko Elkartei buruzko 7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Erkidego Autonomo bakoitzari dagokion legedia eta elkartzeko eskubidea arautzen duen 1/2002 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, edota aurrekoetako edozein ordeztzen duen bestelako edozein Legedi, eta, atzerriko elkarteak badira, Herrialdeko bertako araudia.
- b) Helburua da Real Sociedad de Fútbol S.A.D.ko talde guztienganako babesa, jarraipena eta animoa sustatzea, eta, oro har, koloreak defendatzea eta kirol eta gizarte mailan indar handiagoa ematea.
- c) Bateko eta besteko Lagun Taldeen eta antzeko beste erakunde batzuen arteko elkartasuna eta laguntasuna bultzatuko dute, kultur, kirol edo jolas ekintzen bitartez
- d) Lagun Taldeko kidearen izaera izango du Real Sociedad de Fútbol S.A.D.ko Lagun Talde bateko kidea den pertsona fisiko orok, Lagun Taldearen berezko estatutuei bere borondatez men egiten badio, Estatutuek eta Legeak ezartzen dituen eskubideekin eta betebeharrekin, eta Elkartearen xedeekin konprometituta badago.
- e) Araudi honetan azaltzen diren puntu guztiak betebeharrak dira Real Sociedad de Fútbol S.A.D.k Lagun Taldea ofizial bezala hartzeko. Segidan argituko ditugu.
- f) Araudi honetan azaldutako baldintza guztiak bete eta gero abantailak eta onurak izango dituzte Lagun Talde Ofizialak

2. LAGUN TALDEA SORTZEA

- a) Real Sociedad de Fútbol S.A.D.ek ez du inola ere Lagun Talde berri bat sortzen parte hartuko, ezta horien funtzionamenduan eta/edo desegitean ere.
- b) Real Sociedad de Fútbol S.A.D.ko Lagun Taldeen Sailak Lagun Taldeak eratzeko eta inskribatzeko tramiteetan lagunduko du, beharrezko ereduak emanez eta ahal duen informazioa eskainiz.
- c) Lagun Talde baten izenak Real Sociedad de Fútbol S.A.D.ko Lagun Taldeen Saileko idatzizko baimena izan beharko du. Lagun Taldearen izenak Real Sociedaden aipamena egin behar du eta, ahal dela, bere jarduera garatzen duen lurralde eremuarena. Nahasketak ekiditeko, ez da baimenduko dagoeneko beste Lagun Talde batzuen antzeko izena edo izen berdina erabiltzea, ezta jokalaria batena ere, gaur egun Klubean diharduen zein beterano batena izan.

- d) Ez dira baimenduko klubaren berezko balioen aurka doazen Lagun Talde izenak, edo Legearen aurka doazen esakuneak dituztenak, edo pertsonen oinarrizko eskubideak urra dezaketenak.
- e) Salbuespen gisa, dagoeneko jardunean ez dauden edo hil diren jokalarien izenak erabili ahal izango dira, baina interesdunaren edo senideen baimen idatzia beharko dute, jokalaria hilda badago. Pertsona horiek (jokalaria, prestatzaileak, etab.), Lagun Talde baten izenean egon ahal izateko, lotura handia izan beharko zuten Klubarekin, eta ez dira jardunean egongo.
- f) Lagun Taldeek jardunean dagoen jokalaria bat babes dezakete, betiere jokalaria baimen idatzia lortzen badute.
- g) Real Sociedad de Fútbol S.A.D.ek erregistratutako ikurrak, ezkutuak, anagramak edo bestelako ezaugarriak erabili nahi dituzten Lagun Taldeek aurretiaz Klubaren baimena eskatu Lagun Taldeen Sailaren bitartez eta idatziz eskuratu beharko dute.
- h) Izena erabiltzeko Real Sociedad de Fútbol S.A.D.ko Lagun Taldeen Sailaren baimen idatzia lortu eta gero, Lagun Taldeak Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzari atxikitako Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatu beharko du, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan baldin badu, edo bestela dagokion erkidego Autonomoko Erregistroan. Atzerriko Lagun Taldeentzat Lagun Taldeen Saileko arduradunak esango die zeintzuk diran eman beharreko pausoak.

3. LAGUN TALDE OFIZIAL MODUAN EZAGUTZEA

- a) Real Sociedad de Fútbol S.A.D.ko Lagun Taldeen Sailak baimendutako izenarekin legez eratu eta gero eta dagokien Erregistroan inskribatu eta gero, Lagun Taldeek Real Sociedad de Fútbol S.A.D.ko Lagun Talde sailari eskatu ahal izango diote izendapena eta Real Sociedad de Fútbol S.A.D.ko Lagun Talde Ofizial gisa ezagutu ditzan.
- b) Lagun Talde Ofizial gisa izendatu eta ezagutua izan ahal izateko, Lagun Taldeak idatziz eskatu beharko dio Real Sociedad de Fútbol S.A.D.eko Lagun Taldeen Sailari, honek emango dion fitxa bat betez, eta elementu hauen kopia ere emanek: izendapenaren baimena, estatutuak, eraketa akta, dagokion Erregistroko izen-ematearen ziurtagiria eta IFK. Atzerrian sortutako Elkarteak badira, legeztatze erabili duten dokumentazioa eman beharko dute.
- c) Lagun Talde bat Gipuzkoan Lagun Talde Ofizial gisa izendatzeko eta mantentzeko nahitaezko betebeharra izango da Zuzendaritza Batzordeko kide guztiak (lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria eta diruzaina) eta Lagun Taldeko kideen %50 Klubeko abonudunak edo akziodunak izatea. 150 kide baina gehiago dauzkaten Lagun Taldeak % bat bete beharko dute Real Sociedad bazkideen kopuruan. Kopuruen taula:
 - 151 bazkideetik 199 bazkidera %45a
 - 200 bazkideetik 250 bazkidera %40a
 - 251 bazkideetik 300 bazkidera %35a 301 bazkideetik gora %30^a
- d) Euskal Herriko, Estatuko eta Atzerriko Lagun Taldeetan bazkide edo akziodunak ez diren kideak RS Fan txartela izan beharko dute.
- e) Inola ere ez da baimenduko pertsona bat Lagun Talde bateko Zuzendaritza Batzorde bateko baino gehiagoko kide izatea. Lagun Talde bat baino gehiagoko bazkidea izanda batean bakarrik agertu daiteke bazkide eta akziodun bezala.

- f) Real Sociedad SADeko Lagun Talde Ofizialek Gipuzkoan eta Euskal Herrian gutxienez 25 kide izan beharko dituzte. Estatuan eta Atzerrian 12 kide gutxienez. Salbuespen gisa Euskal Herriko, Estatuko edo atzerriko Lagun Talde batek Gipuzkoan eskatzen diren baldintzak beteko balitu Lagun Talde Ofizial bezala onartuta izango litzateke.
- g) Real Sociedad SADeko Administrazio Kontseiluari eta Lagun Taldeen Sailari dagokio Lagun Talde bat ofizial bezala onartzea eta izendatzea
- h) Lagun Talde Ofizial berriak izendatzeko, Klubaren Lagun Taldeen Erregistroan izena emandako Lagun Talderik ez dagoen hiri, herri edo auzoetan izendatzeko irizpideari jarraituko zaio, edo, horrelakorik egonez gero Lagun Taldeen Sailak izendapenak herri edo inguruko beste Lagun Talde Ofizialei kalte egiten ez dietela badio.
- i) Real Sociedad SADeko Administrazio Kontseiluak eta Lagun Taldeen Sailak Lagun Talde bat Ofizial izendatzea onartzen badute, Lagun Taldeen Sailak idatziz emango du aitortpena, gutun baten bitartez, eta Real Sociedad de Fútbol S.A.D.ko Lagun Talde Ofizialen Erregistroan inskribatuko du.
- j) Real Sociedad de Fútbol S.A.D. ko Lagun Taldeen Sailak diploma bat ere emango dio Lagun Talde bakoitzari, hau araudi honetako baldintzak betetzeari lotuta egongo da.
- k) 203/2010 Real Dekretuaren arabera Lagun Talde bat Ofiziala izateko honen datuak “ Libro de Registro de Seguidor@s”-en egon behar dute. Liburu honen kudeaketa Real Sociedad de Fútbol deko Lagun Taldeen Sailaren ardura pean egongo da, honek Datuak Babesteko Erregimen Orokorra Legea betez.
- l) Lagun Taldeen Erregistroan inskribatu eta gero, Lagun Talde Ofizialak Real Sociedad S.A.Dek eskainiko dizkion begiramen berezi guztiez disfrutatu ahal izango du, baita ere izendapen honekin bat datozen eginbeharren betetzea.

4. LAGUNTALDE OFIZIALEN ERREGISTROA

- a) Real Sociedad de Fútbol S.A.D.ko Lagun Taldeen Sailak Lagun Talde Ofizialen Erregistroa mantenduko du, eta bertan datu hauek agertuko dira:
 - Lagun Talde Ofizialaren helbidea. Lagun Talde Ofizial orok helbide edo egoitza sozial bakarra izango du. Ez da baimenduko helbide berean Lagun Talde Ofizial bat baino gehiago egotea. Inoiz ezingo da helbide partikularra izan.
 - Lagun Talde Ofiziala osatzen duten pertsonen zerrenda (izen-abizenak, helbidea, NAN edo pasaportearen IDa, akziodun kodea edo RS Fans txartelaren IDa.
 - Gutunak jasotzeko helbidea, eta hori Lagun Taldearen egoitza sozialaren helbidea ez beste bat izan daiteke.
 - Harremanetarako telefonoa Posta eta elektronikoko helbidea
 - Zuzendaritza Batzordeko kideen datu osoak (izen-abizenak, NAN zenbakia, IDa, Akziodun kodea edo RS Fan txartelaren zenbakia)

5. MANTENTZEKO BALDINTZAK

- a) Lagun Talde Ofizial guztiek konpromisoa hartzen dute antolamendua eta funtzionamendua aktibo mantentzeko, Legeak eta araudi honek ezartzen dizkien betebeharrak formalak betez, eta konpromisoa hartzen dute urtean behin beren datuak eguneratzeko, beti Liga hasi baino lehen jarritako epearen

barruan, eta horren guztiaren berri Real Sociedad de Fútbol S.A.D. ko Lagun Taldeen Sailari jakinarazteko Lagun Taldeen gertatutako aldaketak edo berrikuntzak Lagun Taldeen Sailak eskuragarri jarriko duen dokumentu baten bitartez. Eguneratutako datuak denboraldi bakoitzean Klubak sortutako Libro Registro de Seguidor@sen agertuko dira.

- b) Halaber, konpromisoa hartzen dute, ahal duten heinean, beren lurralde eremuan Real Sociedad de Fútbol S.A.D.ri lotuta egiten diren jardueretan parte hartzeko, horrek inolako betebeharririk ez dakarren arren.
- c) Edonola ere, Lagun Talde Ofizialek Klubari, Lagun Taldeen Sailaren bitartez, jakinaraziko diote:
 - Urteko Batzarra egin dela, horren ziurtagiri bat emanez, lehendakariak eta idazkariak izenpetuta.
 - Jatorrizko Zuzendaritza Batzordean karguetan izandako aldaketak, Lagun Talde Ofizialen Erregistroan jasoarazi behar diren datuak adieraziz, eta Elkartearen Erregistroan aurkeztu behar den agiriaren kopia emanez.
 - Lagun Taldeko kideen artean gertatzen diren altak eta bajak
 - Lagun Talde Ofizialaren helbidea sozialean, telefonoan edo posta elektronikoko helbidean gertatzen den edozein aldaketa
 - Lagun Taldeak denboraldian egin dituen jarduera guztien memoria dokumentatua
- d) Real Sociedad de Fútbol S.A.D. ko Lagun Taldeen Sailak 5a, 5b eta 5c baldintzak betetzen ez dituzten Lagun Talde Ofizialei baja eman ahalgo izan zaie Real Sociedad de Fútbol S.A.D. ko Lagun Talde Ofizialen Erregistroan

6. LAGUNTALDE OFIZIALAREN IZAERA GALTZEA

- a) Real Sociedad S.A.Deko Lagun Talde Ofizialaren izaera galduko dute Lagun Talde hauek baldin eta:
 - Beren borondatez araudi hau betetzen ez badute
 - Klubaren balioak eta/edo irudia errespetatzen ez badituzte edo mespretxatzen badituzte
 - Edozein bortizkeria mota sustatzen badute
 - Klubak emandako begiramenak oker erabiltzen badituzte
 - Real Sociedad S.A.Deko ondarean, eskubideetan eta/edo interesetan kaltea egin eta/edo eragiten badute
 - Libro Registro de Seguidor@sen izena emanda ez egotea
- b) Klubeko Lagun Talde Ofizialen Erregistroan baja eman ahal izango dira, eta baja behin behinekoa edo behin betikoa izan ahal izango da, gertaeren larritasunaren eta/edo berriro egitearen arabera. Baja emateko erabakia Real Sociedad de Fútbol S.A.D. ko Administrazio Kontseiluak eta Lagun Taldeen Sailak hartuko dute, aurretiaz 15 eguneko epean Lagun Taldeari audientzia egin eta gero, egozten zaizkion eta baja eragin dezaketan eskubideei buruz beraren interesari komeni zaiona alegatzeko.
- c) Lagun Talde Ofiziala izaten jarraitzeko, denboraldi bakoitzaren hasieran Real Sociedad de Fútbol S.A.D. fitxa bat bidaliko du Libro Registro de Seguidor@seko datuak eguneratzeko. Datu horiek Real Sociedad de Fútbol ezarritako epearen barruan jasotzen ez badira Lagun Taldeak bere eskubide

guztiak galduko ditu eta ez da Lagun Talde Ofiziala berriro izango bere datuak eguneratu eta Libro de Registro de Seguidor@ren berriro agertu arte.

7. LAGUNTALDEEN ETA KLUBAREN ARTEKO KOMUNIKAZIOA

- a) Lagun Taldeen eta Klubaren arteko komunikazioa Lagun Taldeen Saileko Arduradunaren eta Lagun Talde bakoitzeko Lehendakariaren edo Lagun Taldeak izendatutako arduradunen bitartez egingo da.

8. DESPLAZAMENDUAK ETA SARRERAK

- a) Lagun Talde batek bidaia antolatu nahi badu Real Soziedadeko Lagun Taldeen Arduradunari jakinarazi beharko dio, 203/2010 Errege Dekretuan, otsailaren 26koan, desplazamenduei buruz aurreikusitako protokoloa gauzatzeko.
- b) Etxeko, zein kanpoko partiduetarako sarrerak,
 - Eskaerak Real Sociedad de Fútbol S.A.D. ko Lagun Taldeen Sailaren ezarritako epeen barruan egin beharko dira.
 - Eskaerak posta elektronikoko bidez egingo dira helbide honetara nekane.soria@realsociedad.eus . Ez da telefono bidezko eskaerarik onartuko idatzizko eskaerarik ez badago.
 - Lehiaketaren egutegia ezagutu eta gero, erreserbak edozein unetan ere egin daitezke (beti ezarritako epearen barruan).
 - Jasotako sarreren kopurua jakin bezain pronto jakinaraziko da zenbat sarrera dauden erabilgarri Lagun Talde Ofizialentzat. Sarrera kopuru hori esleitzeko irispideak ezarriko ditu Real Soziedadeko Zuzendaritza Batzordeak eta Lagun Taldeen Sailak.
 - Zuzendaritza Batzordeak Klubak kudeatuko dituen sarrera guztientzako irizpideak ezarriko ditu eta Lagun Taldeen Sailak hauek betetz gain, Lagun Talde Ofizialentzat dagoen sarrera kopuruarentzat beste batzuk jarriko ditu banaketa egiteko beharrezkoa izanez gero.
 - Klubak eskaera guztiei aurre egiteko moduan aurkitzen denean (Lagun Taldeen artean banatzeko dauden sarrerak eskatutako sarrerak baino gehiago direnean) Real Sociedad de Fútbol S.A.D. ko Lagun Taldeen Saileko Arduradunak eskatu diren sarrera guztiak jasotzeko lanak erraztuko ditu.
 - Lagun Taldeen artean banatzeko dauden sarrerak eskaerak baino gutxiago badira, aipatu ere Lagun Taldeen arduradunak (Real Sociedad de Fútbol S.A.Dko Zuzendaritza Batzordearen irizpideak kontutan harturik) Lagun Talde Ofizialak jasoko dituzten sarreren kudeaketaren ardura izango duela. Lagun Taldeen Saileko arduradunak Lagun Talde Ofizialei jakinarazi egingo die zeintzuk diran Lagun Talde Ofizialentzat hartutako irizpideak sarreren banaketa egiteko. Irizpide hauek betetzen ez duen Lagun Talde Ofizialak ez ditu sarrerak jasoko. Irizpideak Liga hasieran jakinaraziko zaie Lagun Talde Ofizialei, baina beharraren arabera irispide hauek denboraldian zehar aldatu edo handitu daitezke
 - Real Sociedad de Fútbol S.A.D.k Lagun Talde Ofizialentzat sarrera kopuru bat ezarriko du jasotako sarreren arabera. Sarrera kopuru hau BAKARRIK Lagun Talde Ofizialentzat izango dira. Lagun Talde Ofizialek

ezin izango dute sarrerak beste bide batetik eskatu. Adibidez, ezingo dituzte sarrerak online eskatu.

- c) Eskaera egiteak ez du bermatzen eskatutako sarrerak emango direnik. Jasotako eskaeren arabera, eta erabilgarri dauden sarrerak kontuan hartuta Real Sociedad de Fútbol deko Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiaren berri partidaren astean jakinaraziko da Real Sociedad de Fútbol S.A.D. ko Lagun Taldeen Sailaren Arduradunaren bidez eskaera bakoitzari esleitu zaizkion sarreren kopurua.
- d) Eskaerak egiaztatu eta gero ez da itzulketarik onartuko. Sarreren esleipena egiaztatu ondoren eskatutako sarrerei uko egiten dien Lagun Taldeak horien zenbatekoaren %20 ordaindu beharko du, eta egindako zorra kitatzen ez duen bitartean lekuak erreserbatzeko eskubidea galduko du.
- e) Real Sociedad de Fútbol S.A.D. Lagun Taldeen Sailak gainerako taldeekin hitzarmenak lortzen saiatuko da, bere Lagun Taldeek desplazamenduetan sarrera kopuru bat prezio egokian izan dezaten.

9. OSPAKIZUNAK, EKITALDIAK ETA PROTOKOLOA

- a) Lagun Talde Ofizialek egoki irizten dieten ekitaldiak eta ospakizunak egingo dituzte, eta, Real Sociedad de Fútbol S.A.D. estamentu ezberdinen parte hartzeko interesa badute, proposamena idatziz aurkeztu beharko dute (gutxienez hautatutako eguna baino hilabete bat lehenago), Klubeko Lagun Taldeen Sailaren Arduradunari helbide elektronikoko honetan, nekane.soria@realsociedad.eus
- b) Lagun Taldeen Arduradunak baloratu ahal izango du Klubeko ordezkariak lehen ezarritako epetik kanpo aurkeztutako eskaeretan parte hartzea, joateko inolako betebeharririk gabe.
- c) Proposamenean azalduko da nolako ekitaldia den, egiteko eguna, hilabetea, ordua eta lekua, ekintzen programa eta parte hartuko duten pertsonen kopurua.
- d) Klubaren ordezkariaren presentzia behar besteko aurrerapenez egiaztatuko zaio Lagun Talde Ofizialari Lagun Taldeen Arduradunaren bitartez, nahiz eta, Klubaren beharrak tarteko, edozein unetan Real Sociedad de Fútbol S.A.D. ko Lagun Taldeen Saileko Arduradunak ordezkaritza eta eguna aldatu ahal izango du.
- e) Ospakizunak, ekintzak eta bestelakoak kirol arloan izandako konpromezuei lotuta egongo dira, hau da, entrenamenduak eta partiduak ezarriko dute eredia.
- f) Kontutan hartu behar dira Klubak dituen beste betebeharrak ere Lagun Talde Ofizialen ekintzen, ospakizun eta bestelakoen egutegia antolatzeko orduan

10. URTEURRENAK ETA INAUGURAZIOAK

- a) Lagun Talde Ofizialak bere 50. edo 25. urteurrena ospatzen badu, saiakera egingo da Real Sociedadeko lehendakariak eta/edo Klubean ordezkaritza gorena duten zuzendariak parte har dezaten, bestela Lagun Talde berrien irekieran eta gero 5 urteko, hau da, 5.,10.ea ospakizunetan eta jokalaria bateri sari edo omenaldi bat egiten zaionean parte hartuko duten Realeko Sail

ezberdineko partaideak Real Sociedad de Fútbol S.A.D.ko Lagun Taldeen Sailak erabakiko du.

- b) Gipuzkoatik kanpo dauden Lagun Taldeen ekintzak eta ekitaldiak nola egingo diren Lagun Taldeen Arduradunarekin bat erabakiko da nola kudeatu, kontutan izanda lehen taldeetako jokalariek ezin dutela hurbildu ekitaldi hauetara barne-araudiagatik. Taldeen bidai bat baliatuz Gipuzkoatik kanpo antolatu daitezke lehen aipatutako baldintzak betetzen dituzten ekintzak, beti taldearen ordutegiak eta plangintzak kontutan harturik, hauek ez dira inoiz mugituko ekitaldiren bat aurrera eramateko. Ospakizun hauek denborarekin jakinarazi egin beharko zaizkio Lagun Taldeen Sailari eta berak antolatuko du non, noiz eta nola aurrera eraman.